




## Aireko trafikoak gorakada handia jaso du berriro

Aireportuetatik bidaiatu duten pertsonak  
Urte bakoitzeko urtarriletik urrira. Milakoak




Iturria: AENA.

Aurtengo lehen hamar hilabeteetan, EAEko aireportuetatik bidaiatu duten pertsonen kopurua %25,3 igo da, aurreko urteko aldi beraren aldean. Hain zuzen ere, sei milioi pertsona baino gehiago lekualdatu ziren, serie historiko osoan aldi horretan lortutako baliorik handiena.

## KPIa %3,5ean kokatu zen urrian

Euskadiko KPI indizea  
Urte arteko aldakuntza tasa




Iturria: INE.

Urrian, KPIaren urte arteko aldakuntza tasa hamarren bat murriztu zen eta %3,5ean kokatu. Erregaien merkatzeak eta elikagaien garestitze txikiagoak eragin zuten bilakaera hori. Bestalde, azpiko inflazioak behera egiten jarraitu zuen, iraileko %6,1etik urriko %5,4ra.



## Turismoen matrikulazioa igo da EAEn

Turismoen matrikulazioa Euskadin  
Urte bakoitzeko urtarriletik urrira bitartean




Iturria: Trafiko Zuzendaritza Nagusia (DGT).

DGTk argitaratu duen azken datuen arabera, urrira arte 22.333 auto matrikulatu ziren EAEn, aurreko urteko aldi berean baino %6,1 gehiago. Hala ere, gorakada hori gorabehera, lortutako erregistroak pandemiaren aurreko mailen oso azpitik daude oraindik.

## Zama ibilgailuen matrikulazioa areagotu da

Zama ibilgailuen matrikulazioa Euskadin  
Urte bakoitzeko urtarriletik urrira bitartean



Iturria: Trafiko Zuzendaritza Nagusia (DGT).

Era berean, zama ibilgailuen matrikulazioari dagokionez, lehen hamar hilabeteetan %14,4ko igoera erregistratu zen EAEn iazko aldi beraren aldean. Zehazki, ia 4.000 ibilgailu industrial berri matrikulatu ziren, aurreko urteko beheranzko joera hautsiz.